

LANDABERRI, SASOETA-ZUMABURU ETA ORIARTE-KO GURASO ELKARTEEN ESKAERA UDAL GOBERNUARI

Aisialdian, haur eta nerabeek, garapen osasuntsu bat izan dezaten, beraien denboraren % portzentai altu batean herriko kaleetan pasatzen dituzte orduak, sozializazio prozesuan bait daude eta bertan ikasteaz gain, erlazioak sendotzen dituzte.

Guraso Elkarte bezela **oso kezkatuta** gaude uste dugulako gure haur eta nerabeek herrian beraien aisialdi denboran ez dutela **ez lekurik ezta ekintza** nahikorik bere adinekoekin uneak konpartitzeko.

Maiz entzun izan ditugu gure haur eta nerabeei egoteko lekurik ez dutela ezta beraiei zuzendutako ekintza nahikorik ez dituztela; Puntualki, zinema, antzerki, ipuin kontalari eta DJ-ak antolatzen dituzte, ustez egokiak direlarik baina oso puntualki izaten dira eta uste dugu ez dutela beraien beharrei guztiz erantzuten, oso eskas geratzen direlarik.

Ume eta nerabeen garapenerako oso garrantzitsua iruditzen zaigu beraientzako **ESPAZIOAK** izatea; Espazio positibo batek arrisku-jokabideetatik babesteko faktore gisa jotzen du. Nerabe batek baloratua sentitzen den "hirugarren lekua" (ez da ez bere etxea, ez eskola) badu, ez da hain gertagarria ingurune kaltegarrietan baliozkotzea bilatzea eta aislamientoa ekiditzen du (ez da etxean geldituko). Digitalizazioak beraiek denboraren zati handi bat kontsumitzen duen aro batean, **espazio fisiko seguruak** eta estimulatzailerak inoiz baino beharrezkoagoak dira.

Badakigu 7 urteko haur batentzat eta 15 urteko nerabe batentzat ezin dugula berdin diseinatu, beraien beharrak oso desberdinak direlako, horregatik pentsatzen dugu **beraiek jarri behar direla erdigunean** eta zuzenki beraiei galdetu; Baita aisialdiko denbora arrakastatsu antolatu eta espazioak diseinatu dituzten udalei galdetu.

Hau dela eta, erregistro honen bidez ume eta nerabeentzako **ESPAZIOAK ETA EKINTZAK** eskatzen ditugu, geroaldian Lasarte-Oria osasuntsu bat eraiki dezagun.

Sinatzaileak:

Landaberri, Sasoeta-Zumaburu eta Oriarteko Guraso Elkarteak